

## ARANZADIKO ERAZTUNTZE BULEGOKO DOKUMENTUAK

### ARANZADI ERAZTUNTZE BULEGOKO ARAUDIA

Bertsioa: 2021eko apitila.

Dokumentu hau honela aipatu:

Aranzadiko Erantzuntze Bulegoa, 2019. Aranzadi Erantzuntze Bulegoko Araudia, 2021eko apirileko bertsioa. Aranzadi Zientzia Elkarte. Donostia.

## **1.go atala. Izendapena eta helburuak.**

1.go artikulua: Aranzadi Eratzuntze Bulegoa (AEB) Aranzadi Zientzia Elkarteko (AZE) Ornitologia sailaren parte da eta dokumentu honetan azaldutako arauak eraentzen dute (aurrerantzean, Araudia).

2. artikulua. AEB EURING-en ([www.euring.org](http://www.euring.org)) partaide eta kide da.

3. artikulua. AEBak Espainiako edozein lurraldetan lan egiteko ahalmena du eta, salbuespen batzuetan, ondo justifikatuta badago eta bereziki eratzun-helbide propioa ez dutenetan, beste lurraldeetan ere lan egin dezake.

4. artikulua: AEBko helburuak:

1. Eratzunketa baliatuz, "Aranzadi" helbidea duten eratzunak erabilia eta AEBko kideek edota Bulegoak berak sustatutako programak, proiektuak, etab. bultzatuz, hegaztiei buruzko ezagutza emendatzea eta kontserbazioa sustatzea.
2. Argitalpenen bidez edota hedapen zientifikorako jardunaldietan, eratzunketa erabilia sortzen den hegaztiei buruzko ezagutza zabaltzen laguntzea.
3. Eratzuntzean "Aranzadi" helbidea erabilia sortzen diren datuak gorde eta kudeatzea.
4. Hegaztien eratzunketari dagokionean, beharrezkoa den erakundeen aurrean, Bulegoko kideen (eratzunleen) eskubideak bermatu eta defendatzea.
5. Hegaztien eratzunketari dagokionean, Bulegoko kideen zein eratzunlegaien formakuntza bultzatzea.
6. Hegaztien eratzunketari dagokionean, beste erakunde eta instituzioekin elkarlanean aritzea.

## **2. Atala. Kideak eta kategoriak.**

1.go artikulua. AZE kide izanik, AEBko partaide izanen dira (AEBko kideak aurrerantzean), horrela eskatzen dutenek eta ondorengo baldintzak betetzen dituztenek:

1. AEBko Idazkaritzari kide izan nahi dutela adierazi beharko diote.
2. AEBko eratzunle do eratzunlegai izan beharko dira.
3. Beren betekizunetan, AZEko kide moduan bezalaxe, beharrak beteta izan beharko dituzte, hala nola: urteko kuota ordainduta edukitzea.

2. artikulua. Bi eraztunle kategoria daude: Eraztunle Aditua eta Eraztunle Espezifikoa. Bi kategorietan bermeen berritza Eraztunketa Batzarrak ezarritako irizpideen menpe egonen da.

*Eraztunle Aditua.*

3. artikulua. Eraztunle Aditua. Kategoria honetan baldintza hauek betetzen dituzten kideak barneratzen dira:

1. Momentuko ezagutza zientifikoan oinarrituta, Espainian aurki daitezkeen hegazti desberdinen espeziea, adina eta sexua zehazteko behar diren ezagutzak ditu.
2. Eraztunketa proiektuen baitan hegaztiak harrapatzeko erabiltzen diren metodoak ( guztiak odolgabeak) maneiatzeko eta bertatik hegaztiak mindu gabe askatzeko ezagutza dauka.
3. Hegaztiak eraztuntzeko eta neurtzeko (neurri biometrikoak) edota beste lagin mota batzuk modu azkar eta zehatzean hartzeko gaitasuna dauka.
4. Laginketa jardunaldietan modu egokian lan egiteko behar diren ezagutzak dauzka. Gainera, edozein momentutan, hegaztiaren ongizatea arriskuan jar lezaketen baldintzak antzeman eta hegaztiaren ongizatea beste edozein helbururen aurretik jartzeko gai da.
5. Aurretik deskribatutako ezagutza eta gaitasuna duela Azterketa gaindituta edo ezarritako beste neurriak gailenduta egiaztatu du.
6. EURINGen barne dagoen edo EURINGek aintzatetsitako Eraztunketa Bulego batek igorritako eta indarrean dagoen eraztunketarako bermea dauka eta, AEBko Eraztunketa Batzordeari eskaera egin ostean, honek baiezkoa eman dio.

4. artikulua. Eraztunle Aditua izateko azterketa.

1. Eraztunlegaiak eskatuta edo Eraztunle Batzarrak egoki irizten badu, urtean gutxienez deialdi bat egingo da.
2. Azterketaren ordua, data eta lekua Zirkularraren bitartez argitaratuko dira; deialdia gutxienez azterketa data baino bi hilabete lehenago argitaratuko da.
3. Eraztunlegaiak Idazkaritzarekin harremanetan jarrita, azterketa egiteko asmoa dutela adierazi beharko dute. Horretarako zehaztutako bideak erabilia eta gutxienez deialdi data baino 15 egun lehenago, Idazkaritzara dokumentu hauek bidali beharko dituzte:
  - a. Eraztunketa orriak (datu partzialak eta guztizko datuak). Horri hauen bidez eraztunlegaiak gutxienez 1500 ale desberdin eta (espezieko 100 ale gehienez), 60 espezie desberdin maneiatu dituela eta gutxienez 60 laginketa jardunalditan

parte hartu duela ziurtatuko da. Eratzunketa orrietako edukiak Eratzunketa Batzordeak zehaztuko ditu.

- b. Azterketa deialdiaren data baino 4 urte lehenagoko eratzunketak (datuak) bakarrik onartuko dira.
- c. Eratzunle Aditu baten bermea igorri beharko da; bertan eratzunlegaiak atal honetako 3 artikuluan zerrendatutako ezagutzak dituela baieztatuko da.
- d. AZEan kide moduan alta eman denaren egiaztatzea bidali beharko da.

### *Eratzunle Espezifikoa*

5. artikulua. Eratzunle Espezifikoa. Baldintza hauek betetzen dituztenak barneratzen dira kategorian honetan:

1. Espezie bakarrari edo talde bakarrari zuzendutako eratzunketa proiektu oso espezifikoa garatzen dituzte eta ez dira Eratzunle Adituak.
2. Atal honetako 3. Artikuluan zerrendatzen diren irizpideak jarraituz, ekintza aurrera ateratzeko behar diren ezagutzak dituzte.

6. artikulua. Eratzunle Espezifikoko moduan alta emateko pausu hauek jarraitu beharko dira:

1. AEBan eskari ofiziala egin (Idazkaritzari idatzita).
2. AZEko kide moduan alta ematea.
3. Ikerketa proiektu batetan parte hartzea. AEBko Idazkaritzara proiektu horren kopia digitala bidaliko da. Bertan titulua, aurkezpena, helburua/k, itu espeziea(k) metodoak (laginketa eremua, laginketa aldia, protokoloa, harrapaketa metodoa(k), etab.), parte hartzaileak, afiliazioa, aurretiko esperientzia (baldin badago) eta orokorrean, Eratzunketa Batzordeak proiektua ebaluatzea baimenduko duen datu oro agertuko dira.
4. Eratzunle Aditu baten bermea edo beste Eratzunketa Bulego batetako bada, baliokidea den idazkia; gainera, eratzunle adituaren NANaren fotokopia bat eta Eratzunle karneta/bermea bidali behar dira.
5. Bermea ematen duen Eratzunle Adituak sinatutako Eratzunketa orriak Idazkaritzara bidali behar dira. Eratzunle Batzordeak eratzunle orrien edukia proiektuaren eta ikertu nahi den espeziearen arabera zehaztuko du.
6. Araudi honetan zehaztutako betebeharrak konplitutako direla baieztatzen duen idazkia sinatuta bidali beharko da.
7. Dokumentazio guztia jaso ostean, gehienez, hilabeteko epean, Eratzunle Batzordeak bere erabakia eskatzaileari helaraziko dio.

8. Bermea jaso duen eraztunle espezifikoak jardunbide okerrak baditu, Bermea ematen duen Eraztunleak AEBaren aurrean erantzun beharko du eta Zigor-Araudian jasotako zigorrak jaso ditzake.

### **3 atala. Eskubideak.**

1.go artikulua. AEBko eraztunleek eskubide hauek dituzte:

1. Deialdi bakoitzak zehaztutako baldintzak betez, AEBak antolatutako kanpaina eta ekintzetan parte hartu ahal izango dute.
2. AEBko Zirkularra eta AEBko doako argitalpenak jasoko dituzte.
3. Eraztunle Taldeak (ET) osatu ditzakete. Eraztuntze Taldea AEBko bi eraztunle edo gehiagok osatutako taldea da. ETren sorrera data Idazkaritzari adierazi ostean, Eraztunketa Batzordeak proposamena onartzen dueneko data izango da. Taldea osatzeko Idazkaritzari informazio hau bidaliko zaio:

- a) ET osatzen duten eraztunleen izen-abizenak.
- b) Koordinatzaile lanak hartzen dituen eraztunlearen izen-abizenak.

ETko koordinatzaileak 4. Ataleko 1.7 artikuluan azaltzen diren funtzio eta betebeharrak ditu.

- c) ETaren izena.

2. artikulua. Eraztunle Adituek gainera,

1. Eraztunle Batzarrean hitza eta bozkatzeko eskubidea izanen dute. Bozka, Eraztunle Batzarrean pertsonalki edo beste pertsona baten esku utziz (bere izen abizena, NAN zenbakia eta bozka jasotzen duen pertsonaren izena dokumentu batetan bilduz) emanen da.
2. Eraztunle Batzarrean Eraztunketa Batzordeko kide moduan aukeratuak izateko eskubidea dute. Eskubide hau izateko AEBko kide moduan alta eman zuteneko datatik gutxienez 4 urte pasa beharko dira.

### **4 atala. Betebeharrak.**

1.go artikulua. AEBko kide guztiek betebeharrak hauek dituzte:

1. Horretarako ahalbidetutako euskarriak erabilita eta Eraztunketa Batzordeak ezarritako arau gehigarriak beteaz, urtarrilaren 5a baino lehen Idazkaritzara eraztunketei, soberako materialari eta tramitatu gabeko berreskurapenei dagozkion datuak bidali behar dira.

2. Irailaren 30a baino lehen, eraztundu nahi den erkidegoei zuzendutako eraztunketa baimena eskariak bidaliko dira. Horretarako ekintza justifikatzen duen idazkia, hau da, eskariak justifikatzen dituen proiektua bidali beharko da; proiektuak gutxieneko atal hauek izanen ditu: (1) titulua, (2) partaideak (eraztunleak) eta, proiektuan eraztunle bat baino gehiago parte hartzen duenetan, arduradun den koordinatzailearen izena, (3) helburuak (labur eta zehatzak), (4) materiala eta metodoak (ikerketa eremua, harrapaketa metodoak, datak), (5) ekintzak izan lezakeen eraginaren ebaluazioa (hilkortasunaren estimazioa, ikerketa eremuko landaredian ekintzak izan lezakeen inpaktuaren ebaluazioa, inguruko kolektiboekin adostutako akordioak, etab. Proiektua aurkezten ez bada, eraztunketa baimena administratiboak eskatze izapideak bertan behera geldituko dira.
3. Debekatuta dago norberak eraztunketa baimena eskaerak Administrazioei edo eskumena duten erakundeei bidaltzea. Xedapen hau hausteak Zigor-Araudiak jasotzen dituen zigorren aplikazioa eragingo du.
4. Eraztunle Espezifikoaren bermearen baitan ezarritako erantzukizun guztiak bere gain hartzea.
5. Dagozkion baimena administratiboak izan gabe sekula ez eraztuntzea.
6. Zigor-araudiak ezartzen dituen zigorrak betetzea.
7. ET bakoitzeko koordinatzaileak funtzio eta betebeharrak hauek izango ditu:
  - a. AEBaren aurrean ETaren funtzionamenduaren erantzulea da.
  - b. ETaren lanetik eratorritako datuak AEBari bidaltzeko erantzukizuna dauka (ikus xehetasun gehiago 3. eta 4. atalean). AEBari bidalitako dokumentazioan dauden akatsak koordinatzailearen erantzukizuna izanen dira.
  - c. AEBari, ETan sor litezkeen eta ETaren funtzionamendu egokia eragotzi lezaketan arazo berri emateko ardura dauka eta mota honetako arazoaren aurrean AEBaren bitartekaritza eskatu dezake.

## **5. atala. AEBko egitura eta kudeaketa organoak.**

1.go artikulua. AEBko kudeaketa organoak, Eraztunle Batzarra eta Eraztunketa Batzordea dira.

### *Eraztunle Batzarra*

2. artikulua. Eraztunle Batzarra AEBko goreneko kudeaketa organoa da eta AEBko Eraztunle Aditu guztiek osatzen dute.

3. artikulua. Eratzunle Batzarraren funtzionamendua:
  1. Eratzunketa Batzordeak erabaki ostean edo eratzunleen %25ak eskatuta, deialdia AEBko Zuzendariak egingen du.
  2. Deialdia Zirkular bidez argitaratuko da, beti ere gutxienez deialdia baino 15 egun lehenago eta ordua, data lekua eta gai-zerrenda zehaztuta. AEBak urtean gutxienez Batzar bat ospatuko du.
  3. Batzarra aurreko puntuetan zehaztutako puntu guztiak betetzen direnean eratuko da. Hitza eta bozka 3. atalean zehaztutakoaren arabera erabiliko dira.
  
4. artikulua. Eratzunle Batzarrari dagokio:
  1. Araudi hau berritu edo aldatzea. Aldaketa bakoitzaren ostean araudi berria AZEko Zuzendaritza Batzordeari onar dezan bidaliko zaio.
  2. AEBko Eratzunketa Batzordea hautatzea, berritzea eta guztiz edo partzialki kargugabetzea.
  3. Eratzunketa Batzordearen lana, honen kudeaketa onartuz edo ezetsiz, ikuskatzea.
  4. AZEko Zuzendaritza Batzordeari AEBaren banaketa proposatzea.
  5. Eratzunketa Batzordearen eskumenak ez direnean, AEBaren bizian garrantzizkoak izan litezkeen beste edozein eskumen.

#### *Eratzunketa Batzordea*

5. artikulua. Eratzunketa Batzordea gehienez Eratzunle Batzarrak aukeratutako 5 kidek osatzen dute. Zuzendaria ere Batzordearen kide da baina berau Ornitologia saileko kideek aukeratzen dute.
  
6. artikulua. Eratzunketa Batzordearen funtzioak hauek dira:
  1. Batzarren artean eratzunleak ordezkatzeta.
  2. Eratzunle Batzarraren buru izatea.
  3. AZEko Zuzendaritza Batzordeari AEBko Zuzendariaren aukeraketaren, berrikuntzaren edo kargugabetzearen berri ematea.
  4. AEBko funtzionamendua erraztuko eta hobetuko duten arau osagarriak garatzea.
  5. AEBaren kudeaketari eta eratzunleen betebeharrei lotuta, Eratzunketa Batzordeak garatutako araudia, honek onar dezan, AZEko Zuzendaritza Batzordeari helaraztea.
  6. AEBa finantziatzeko eta orokorrean, kanpainak, ikastaroak, eta eratzunketarekin lotutako proiektuak eta ekintzak garatu ahal izateko funtsak bilatzea.

7. Prestakuntza ikastaroen edo beste baliabide batzuen bitartez formakuntza zientifikoa eta AEBko eraztunleen eguneraketa sustatzea.
8. Kanpaina eta ekintza berezien garapena bultzatzea eta beharrezkoa bada, hauen planifikazio eta koordinazioan partaide izatea.
9. AEBan gordetako informazioa oinarritzat duten ikerketen garapena sustatzea.
10. Eraztunketa bultzatzea eta lan eremuen gainjartzea eta eraztunleen arteko gatazkak ekiditea.
11. AEBko kide direnen eraztunketa lanak ikuskatzea eta Araudi hau edo AEBko arau desberdinak betetzen ez direnean, erabakiak hartu eta neurriak beteharaztea.

7. artikulua. Eraztunketa Batzordearen funtzionamendua:

1. Eraztunketa Batzordea gutxienez urtean behin bilduko da; Eraztunle Batzarrak beharreko baderitzo, Batzarraren aurretik behar den guztietan bilduko da.
2. Batzordearen bilera deialdi guztiak batzordekide guztiei helaraziko zaizkie eta ordua, data, lekua eta gai-zerrendaren berri emango zaie.
3. Eraztunketa Batzordea, Zuzendariak, Batzorde osoak edo Batzordearen %50ak eskatuta bilduko da.
4. Batzordean adostutako akordioak, bozketen gehiengoaz onartuko dira eta baliozkoak izan daitezten, AEBko Zuzendaria (edo bere izenean dagoen batzordeko kide bat) eta Batzordeko kideen %50a bertan egon beharko dira. Berdinketa badago, Zuzendariak bere bozketaren bidez erabakiko du.
5. Eraztunketa Batzordean egon litezkeen bajak, ordezkioak daudenean, hautaketa egin zenean jasotako bozka kopuruaren arabera ordena jarraituta beteko dira.

8. artikulua. Eraztunketa Batzordeko kide izateko hauteskundeak bi urtetan behin ospatuko dira. Posible denean, hauteskundeak Eraztunle Batzara ospatzen deneko egun berean egingo dira. Hauteskunde egutegia honakoa izanen da:

1. Hautagaitzak aurkezteko epea Eraztunle Batzarra baino 2 hilabete lehenago itxiko da. Epea bukatutakoan kide hautagai kopurua nahikoa ez bada, Batzordea uzten duten kideek epea luzatzeko aukera izanen dute.
2. Hauteskunde eguna baino hilabete bat eta bi hilabete arteko epean, hautagai zerrenda argitaratuko da.



### *AEBko Zuzendaria*

Art. 9. AEBko Zuzendaritza kargua Ornitologia saileko Zuzendariak hartuko du. Ornitologia Saileko Zuzendariaren aukeraketa prozesua Ornitologia Saileko Araudiak jasotzen du.

Art. 10. AEBko Zuzendariaren funtzioak hauek dira:

1. AZEko Zuzendaritza Batzordean eraztunleak ordezkatzeta eta AZEko Zuzendaritzari AEBko berriak helaraztea.
2. Eraztunleak eta Aranzadiko Eraztuntze Bulegoa ordezkatzeta.
3. AEBko Eraztunketa Batzordeko buru izatea eta Eraztunle Batzarrean moderatzaile moduan aritzea.
4. Idazkaritzako lana ikuskatzea eta ongi funtzionatzen duela bermatzea.
5. AEBak sustatu eta deitutako bilera guztietan burukide lanak egitea.

### **6. Atala. AEBko Idazkaritza eta Idazkaria.**

1.go artikulua. AEBak bere Idazkaritza propioa izanen du eta honen funtzioa eraztunketarekin zerikusia duten ekintza orokor eta espezifikoen kudeaketa eta koordinazioa izanen da. Idazkaritzako lana Idazkariak egingo du (bere funtzioak atal honetan zerrendatzen dira).

2. artikulua. Eraztuntze Batzordeak, Idazkaria nor izango den erabakiko du eta hautagaiek bete beharko dituzten baldintza tekniko zein zientifikoak eta dedikazioa zein izanen den ere zehaztuko du.

3. artikulua. AEBko Idazkaritzaren funtzioak dira:

1. Gai hauekin erlazionatutakoak tramitatzea:
  - a. Eraztunle zein ETen sarrera eta kudeaketa.
  - b. Eraztunketaren ondorioz sortzen diren datuen kudeaketa (jasotzea, birpasatzea, zaintzea, etab.).
  - c. Eraztundutako hegaztien berreskurapenen tramitazioa.
  - d. Eskumena duten erakundeetan eraztunketarekin erlazionatutako ziurtagiri eta baimenak izapideak egitea.
  - e. Eraztunketa Batzordearen ikuskaritzapean, eskaerak jasotzean EURING-i, beste eraztunketa elkarte batzuei, Administrazioei eta ikerlariei AEBaren aktibitatearen ondorioz sortutako datuak bidaltzea.
2. AEBko Zuzendaritzak eta Eraztunketa Batzordeak hartutako erabakiak betearaztea eta Eraztunle Batzordearen funtzionamenduan ondorio den aktibitate burokratikoan laguntzea.

3. AEBko zirkularra, urteko txostenak, laburpenak eta dibulgazio materialak osatzea.
4. Eratzunketa Batzordearen bileretako akta jasotzea; idazkaritzak bilera hauetan parte hartuko du baina ez du bozkatzeko eskubiderik izanen.
5. Eratzunketarako materiala (eratzunak nagusiki) erosi, inbentariatu eta banatzea.

4. Artikulua. AEBan azkeneko urtean jasotako informazioa gordeko da. Urte bat baino zaharragoak diren dokumentuak AZEko egoitzan gordeko dira.

5. Artikulua. AEBak Aranzadi Zientzia Elkarteko, donazioetako, kanpainetako soberakinetako, bulegoak egindako lehiaketetako edo beste bide batzuk jarraituz lortutako baliabide materialak erabiltzeko eskubidea izanen du.

6. Artikulua. Eratzunketak sortutako kuota edo diru-sarrerak, Eratzunketa Batzordeak emandako gomendio eta iradokizunak jarraituz, AZEak kudeatuko ditu.

7.atala: Eratzunketa datuei buruzko xehetasunak.

1.go artikulua. Eratzunleek, Eratzunketa Zientifikoaren baitan jasotako datuen jabetza intelektuala eratzunleena da. Beraz:

1. Eratzunle batek denbora tarte batez edo behin betiko eratzuntzeari uzten dionean, berak kontrakoa adierazi ezean eta bost urteko epean, bere datuak ez zaizkio inori utziko.
2. Bulegoak norbaiten eratzunketa/berreskurapen datu eskaria jasotzean, utzi aurretik eratzunlearen oneritzia jaso beharko du.

2. artikulua. AEBak eratzunleen datuak, modu metatu edo laburtuan argitaratzeko eskubidea bere gain gordetzen du. Horrela, eratzunleen proiektu eta interesak inondik ere konprometitu gabe, galdera orokorreari erantzuteko aukera izanen du.

## **8.atala: Arau osagarriak.**

1.go artikulua. AEBko kudeaketa organoek hartutako erabakien aurrean eratzunleek aurkaratzeak eta erreklamazioak egin nahi izanez gero, lehenik eta behin, erabakia hartu dutenei zuzenduko zaizkie; hauen erantzuna nahikoa ez denetan, eratzunleek goreneko organoengana jotzeko aukera izanen dute, AZEko Batzar Orokorrean beren argudioak aurkezteko aukera izanik. Horrelakorik gertatuz gero, Zuzendaria, Eratzuntze Batzordeak

erabakitakoaren menpe egonen da eta Batzordea, Eraztunle Batzarrak erabakitakoaren baldintzapean.

2. artikulua. Eraztunle Batzarrak izanen du araudi hau aldatzeko eskumena; horretarako Eraztunle Batzordeak edo eraztunleen %25ak eskatuta Batzarra bilduko da. Gutxienez, Eraztunle Batzarra baino hilabete bat lehenago, aldaketa iradokizunak argitaratuko dira eta Batzarrean proposamen hauek eztabaidatzeko aukera egonen da. Gainera, Batzarreko gai-zerrendan aldatu nahi diren artikuluen berri eman beharko da.

3. artikulua AEBko banaketari dagokion erabakia Ornitologia Sailaren eskumena da. Banatzeko proposamena (arrazoiak azalduta) Sailean bozkatzeko eskubidea duten kide guztiek edo %25ak edo, AZEko Zuzendaritza Batzordeak eskatuta aintzat hartuko da.

4. artikulua. Araudi honetan azaldu ez diren gaietan, AZEko Estatutoek eta Aranzadiko Zuzendaritza Batzordeak eta Batzar Orokorrak hartutako erabakiek diotena aplikatuko da.